

# Puntu eta segi, mobilizazioetan

M-21eko greba orokorraren eragina ez da soilik eguneko portzentajeetan neurtu behar. Langile protesten motorra pizteko giltza izan liteke eta mobilizazio handiagoak aktibatuta ditzake. Izan ere, azken hamarkadetako krisi handienaren aurrean, nork uste du “bake sozialik” egongo denik?

URKO APAOLAZA

SINDIKATUEN gehiengoak deituriko greba orokorrak %10-15 inguruko jarraipena izan zuela esatea –kopuru horiek eman zituzten Eusko Jaurlaritzak eta patronalak– barregarria iruditu zitzaion bati baino gehiagori. Sindikatuek, aldiz, greba “arrakastatsua” izan zela esan zuten eta jarraipena %50 inguruan neurtu zuten, enpresaz-enpresako datuekin. Tenta-garria litzateke benetako kopurua erdibidean dagoela esatea, baina seguruenak ez litzateke egia izango. Izan ere, nola neurtzen da greba baten eragina eta garrantzia?

Eguneko portzentajeetatik harago, grebak esanahi asko izan ditzake. Ez du zertan azken helburua izan behar egun bateko indar erakustaldia egitea –nahiz eta hori ere garrantzitsua den–, kontzientziak astintzeko tresna gisa ere erabil liteke greba bat.

## Deskalkifikazioak

Deigarria izan zen enpresarien elkar-teetako ordezkariak erabilitako termino gogorrek greba orokorrak utzitako ondorioak baloratzeke orduan. Confebask-eko presidente José Guillermo Zubiak “erabateko porrota” izan zela adierazi zuen eta Gipuzkoako enpresarien elkarte (ADEGI) idazkari nagusiak, Jose Miguel Ayerzak, esan zuen Gipuzkoan “eragin gutxien izan duen greba orokorra” izan zela maiatzaren 21ekoa.

Baliteke grebak ez edukitzea duela hamar urtekoaren jarraipen berbera –%75etik gora sindikatuen

arabera eta %50 inguru patronalaren ustez–, baina bi sindikatu nagusiren babesik gabe egin da eta hori ere kontuan hartu beharra dago. Dena den, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako aktibitate ekonomikoaren zati handi bat gelditu duen langile mobilizazio bat modu horretan mespretxatzean, urduritasuna nabaritu zaio patronalari.

## Egongo al da etorkizunean mobilizazio bateraturik?

Behin eta berriz errepikatu diguten bezala, azken hamarkadetako krisirik handienean gaude, eta ekonomia globalak jadanik hondo jo duela dioten arren, langileentzat krisiak oraindik ez du hondorik jo; datozen hilabeteetan despidoak eta EEKak ugari izango direla dirudi. Panorama horrekin, langileak etsipenetik protestara pasa litezke eta hilaren 21eko greba orokorrak iratzargailuarena egiteko balio izan du. Agian, horrek esplikatu dezake patronalaren urduritasuna. Zer gertatuko litzateke sindikatu guztiek bat egingo balute hurrengoan?

Ez da gauza ezinezkoa, 1999an hala gertatu zen. Dena den, CCOO eta UGTk elkarrizketa sozialaren bidea urratu nahi dute aurretik,

**Langile mobilizazioa modu horretan mespretxatzean, urduritasuna nabaritu zaio patronalari**



LANDER ARBELAITZ

baina horrek fruiturik ematen ez badu –ELAk eta LABek aspaldi esana dute “oskol hutsa” dela elkarrizketa soziala– ez dute baztertu mobilizazioetara jotzea. CCOOeko ordezkariak adierazi izan dute Espainiako Gobernuak saiatzen bada langileen kalterako lan erreforma bat aurrera eramaten, greba orokorra aukera bat izan litekeela. Sindikatu abertzaleen eta estatisten ikuspuntua ezberdina da, argitzeke dago baina, estatu osorako greba deialdi baten aurrean –gauza gaitza, hala ere– sindikatu batzuek eta besteek nola jokatuko luketeen.

## Greba XXI. mendean

Greba eguneko mobilizazioak jendetsuak izan ziren. Bestalde, pikete informatiboekin ohiko tira-birak ere gertatu ziren eta telebista nahiz medioetan irudi horiek hartu zuten protagonismoa. Ezer gutxi esan zen, tamalez, lana galtzearen beldur lantokira joan behar izan zuen langile anonimoaz. Esan liteke greba “klasiko” bat izan zela: asanbladak, konsignak, auto karabanak, afixak horretan...

Ez legoke gaizki hausnartzea XXI. mendean tresna horiek kapaz ote diren langileak erakartzeko edo errutina pasiboan ez erortzeko. Imajinez egindako ekintzek beti izan dute sinpatia gehiago herritarrengan. Esaterako, 1999ko greba orokorretik gaur egunekora badago diferentzia nabarmen bat: Internet. Aprobetxatu al dute sindikatuek teknologia



Gehiengo sindikalak deituriko manifestazio baten amaiera Donostian. Milaka lagun bildu zen mobilizazioetan.

berriek eskaintzen duten kontrainformazio aukera? Euskarazko internauten artean izan zen saiorik arlo horretan, [www.grebaorokorra.info](http://www.grebaorokorra.info) webgunearen bidez.

Dena den, ez zen izan bezperako telefono mugikorrezko mezu kilimarririk, pintadak ere gutxi, sabotajeek normalean baino oztupo gutxiago eragin zuten... Krisiaren okerrena oraindik igaro ez denean, kartutxo guztiak kolpe batean ez xahutzeko estrategia –“intentsitate baxuko” greba– izan ote den, horra hor zalantza. Hain zuzen, Rafa Diezek hurrengo igandeko *Berrian* adierazi zuen “jarraipena behar duen urrats sendoa” izan dela M-21eko greba.

Honek guztiak adierazten du mobilizazioak hasi besterik ez direla egin. Frantzian lehenik greba orokor bat egin zen urtarrilean, eta beste indartsuago batekin erantzun zioten Gobernuaren itxikeriari martxoan. Izan ere,

grebak nahi adina egin daitezke, nahi modutara eta nahi denarekin, baina horretarako oinarri sendoak sortu behar dira, eta sindikatu abertzaleek arrunt lan zaila dute horretan.

### Bigarren irakurketa: greba politikoa

Greba deialdia egin eta berehala esan zen Lopezen gobernu berriari “ongi etorria” egiteko greba zela. Deitzaileek askotan egin diote uko horri, azalduz, greba egitea hauteskondeen aurretik erabaki zutela. Gainera, ez da bizkorra izan behar ikusteko ELAren eta LABen harremanak ez zeudela onenean aurreko gobernuarekin. Lopezek bizkor

jokatu du eta enpleguaren konpentziak traspasatzea adostu zuen Gobernu zentralarekin greba egunean bertan. Dena den, nabarmen geratu da zein izango den bere hautua, patronalarekin inorekin baino lehenago bildu denez.

Abertzaleek deituriko greba, greba politikoa dela esanez oztopatu nahi izan du sektore estatualistak. Adolfo Muñozek astekari honi garbi adierazi zion greba sindikala izanagatik helburu politikoaak dituela. Baina zein grebak ez du helburu politikorik? Politika ekonomikoa aldatu nahi bada, halabeharrez da greba politikoa.

Dena den, abertzaleen ekintza sindikal bateratu puntual honek, Lizarra-Garaziko garaiak oroitarazi dizkio bati baino gehiagori. Agian, Euskal Herriko subiranisten artean egosten ari denari tamaina hartzeko balio lezake. ■

**Greba orokorrak sektore subiranistan egosten ari denari tamaina hartzeko balio lezake**

**Uztartza**  
ATERPETXEA eta JATETXEA

Herriko plaza 2/g • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 69 34 81

Eguneroko menua  
Asteburuetan betiko sukaldaritza